

# Udal talde politikoaren iritzia



## ZORIONAK ETA URTE BARRI ON!!

Egun gutxi barru amaituko dugu 2017a. Espero dugu urte ona izan dela guztiontzat, eta, hura aztertuz gero, gure bizitzako alderdi guztiak hobetu ditugula: pertsonala, familiara, lan-eko, soziala, eta abar. Azken egun hauetan dagoeneko gozatu ahal izan dugu Gabonetako lehen lagun eta familia bilerekin, eta, orain, gero eta gehiago ari gara hurbiltzen urte honen amaierara, laster gure bizitzaren ziklo berri bati hasiera emateko esperantzarekin.

Getxok aurrera egiten jarraitzen du espazioak, ekipamenduak eta gure kaleak, plazak eta parkeak modernizatzeko eta hobetzeko prozesuan; eta, balantzea egiteko garai hauetan, EAJ-PNVtik eskertu egin nahi dugu

Getxoko herritar askok proiektu estrategikoetarako helarazten diguzuen babes. Proiektu horiek 2018an erreferentzia bilakatuko gaituzte kultura arloan, sustapen ekonomiko

arloan, herritarrekin batera egindako lan arloan, ezberdinen arteko akordio eta bateratze arloan, eta gure kale eta plazetako jasangarritasun eta bizi kalitate arloan.



Getxoztarrekin hartu ditugun konpromisoak betetzen ari gara, Eusko Alderdi Jeltzaleak bere bizitza eta historia luzean egin izan duen bezala. Erantzukizuna eta zorroztasuna dira gure arduraren eta gure lan politikoaren oinarri, Euskadi, Bizkaia eta Getxo direlako gure herria, eta herri horretarako ari baikara lanean. 65 urte beranduago, gaur egun, Agirre lehendakariaren hitzek oraindik ere zehazten jarraitzen dute Eusko Alderdi Jeltzalearen bidea.

Urte honen azken egunak zoriontsuak izan daitezela opa dizuegu, eta 2018a izan dadila urte ona gure bizitzako alderdi guztietan. ZORIONAK eta 2018 Urte Barri Oparoa izan daigula!!!

PSE-EE  
PSOE

## INPROBISAZIOAREN ETA ARGAZKIAREN ALDERDIA

Gabonetako festen hasierak kontsumorako garai egokia ekarri ohi digu. Hain zuzen ere, ezohiko eztabaida bat izan dugu osoko bilkuren aretoan azken egun hauetan, Getxoko merkataritzari eragiten dioten arazoengatik. Talde guztiek, salbuespenik gabe, gure kezka eta konpromisoa adierazi genuen: horiek hezurramitu egin dira lan mahai bat sortzeko akordioan; bertan adituek eta alderdi politikoek parte hartuko dute, Getxo Enpresatik eta Eusko Jaurlaritzatik abian jarritako neurriak hobetzeko proposamenak egiteko helburuarekin. Hala ere, deigarria da PPKk gai horren inguruan egiten duen planteamendua. PPK honako hau proposatzen du: egoera zail hori konpontzeko, beraien esanetan beren jarduerara "nabari jaitsi duten" dendetan diru publikoa txertatzea, ez beste ezer. Hori guztia, noski, bizkarra emanez Estatu osoan kontsumoak jasan duen atzeraldiaren arazoei. Arazo horrekin badute loturarik langabeziaren, ezberdintasunaren, lan prekarietatearen edo pobrezia datuek. Ez da ahaztu behar, gai horri lotuta, kontsumoa zergapetzen duten zergen igoera orokorra, Rajoyren gobernuaren zerga politika inprobisatuak ekarri duena. Inprobisazioa eta adabakiak, argazkia ateratzeko.



## EGUBERRI ON!



Lerro hauek baliatu nahi ditugu zuei guztiei Eguberri ona eta urte berri ona opatzeko. Urte berri bat hasi behar dugu, itxaropenez eta proiektu berriz bete, eta etorkizunerantz begiratu behar dugu. Gure helburuak betetzeko lan egingo dugu, eta borroka egingo dugu gure desioak bete daitezela. Horregatik, zuen eskaerak helarazteko eskatzen dizuegu: 2018rako gure zereginak, alegia. Guk, geure aldetik, hitza ematen dugu ahal dugun guztia egingo dugula horiek errealitate bihurtzeko. Horrela, gure ahaleginarekin eta zuen babesarekin, gure helburu guzti-guztiak betetzea lortuko dugu, gu guztion artean.



## BAZEN BEHIN...

Gabonek distira berezia izan ohi dute Getxon: Gabonetako argiek gure auzoak kolorez eta zorientasunez betetzen dituzte. Kaleek atsegin handiz hartzen dituzte oinezkoak, eta haurrak seguru joan ohi dira eskolara, oinez. Bidegorriek Getxo lotzen dute, bazter batetik bestera. Haien sarearen trazatuak, gainera, modu abegitsuan lotzen ditu inguruko gainerako herriak. Andra Mariko baratzeak ez ditu zementuak inbaditu oraindik ere, eta Kandeluk bertan bizi den faunaren bizitza bermatzen du. Getxolandian,

gozamina da ikustea haurrek nola disfrutatzen duten, aterpean eta epel-epel. Olentzerok ez die zirarik ekarri, eta Erregeek ez diete katuskarik ekarri beharko. Guk, emakumeok, badakigu zer den seguru sentitzea, eta ez ausart. Adinekoek beren jardueraz gozaten dute beren beharretara egokitutako lokaletan, beraiek aukeratu dituzten tokietan bertan. Gure udal eraikinak irisgarriak dira, baita gure edukiontzia berriak ere: jada inor ez da kexatzen pedalik ez dagoelako! Dendetako salmentak gora doaz urteko

garai honetan, obrarik gabeko herri batean dauden iristeko eta aparkatzeko erraztasunei esker. Hara! Abenduaren 28a! Zeinen ederra litzatekeen egia balitz! URTE BERRI ON!



## JAI ZORIONTSUAK!



Ciudadanos Cs Getxo udal taldetik Gabon zoriontsuak eta 2018 urte berri ona opa nahi dizuegu herritar guztioi. @Csgetxo



## HERRIARENA, HERRIARENTZAT!

EH Bildu Udal Taldea osatzen dugunok Getxoko Udalak ematen dizkigun gabon otarrak auzokideen artean banatzea erabaki dugu. Zergatik? Pribilegiorik nahi ez dugulako. Behin baino gehiagotan adierazi dugu kargu publikoari ez dagokigula gabon-otarririk, getxoztar guztion diruarekin ordaindutako opariak dira eta. Oinarri juridikorik ez dagoelako. Foro ezberdinetan galdetu izan dugu ea zein den "opari" hau ahalbidetzen duen araua eta udal gobernuak ez da erantzuteko gai izan.



Elkartasuna norberak ordaindu behar duelako. EAJk, PSEk, Csk eta PPko zenbait ordezkariak pribilegio hau mantetzeko argudiatzen dute euren otarrak dohaintzan ematen dituztela. Hori ez da irtenbidea, ez da zilegia Getxoztarren diruarekin bakoitzaren elkartasun-irudi ekin-tzak ordaintzea.

Horregatik guztiagatik, Abenduaren 29an, gerturatu zaitez dagokizuna eskuratzen: Areetako Xake plazan 11:00etan eta Algortako Telletxe plazan 12:30etan.